



Gaztelugatxeko San Joan, aukera bat Bizkaiko itsasertzarentzat.
Bizkaiko Foru Aldundiaren proposamena

Laburpen exekutiboa
2018ko martxoak 20

Gaztelugatxe, bizkaitarren ikonoa

Gaztelugatxe eta, bereziki San Joan basiliza, Bizkaiko ondarearen, naturaren eta kulturaren ikonorik adierazgarrienetakoa da. Bisiten kopuruaren hazkuntza gertatzen ari den testuinguruan derrigorrezkoa da, bere antolamendu integralaren bidez, **Biotopoa eta bere ingurua babestea, eskualdearen jardura ekonomikoaren sorkuntzan lagunduko duen turismo jasangarriko proiektua sortuz.**



Iragana

- **Bizkaiko ondarearen** eta itsasertzaren ikonoa.
- **Baseliza erromesaldi erlijiosoaren helmuga da**, mito eta tradizioen sorleku.
- Erreferentziako esparrua da **erlijio-ospakizunetarako**



Oraina

- **Biotopo** babestua: balio natural eta paisajistiko handia du.
- Bizkaian **turistek** gehien bisitatzen duten bigarren lekua da; azken urtean nabarmen hazi da bisiten kopurua.
- **Tronuen Jokoa efektua**: bisitak hazi egin dira eta, usteen arabera, etorkizunean hazkuntza hori handiagoa izango da.
- **Bisiten kontzentrazioa** jenderik gehien etortzen denean: turismoa urtaroen arabera gertatzen da eta ordutegi jakin batzuetan pilatzen da.
- Inguruan **turismoaren-ingurumenaren antolamendua mugatua da**.
- Tokiko bisitariaren eta estatuko eta atzerriko bisitarien arteko elkarbizitza, bisitak egiteko ohitura desberdinak dituztenak.



Gaztelugatxe etorkizunean zer izatea nahi dugu?

- Erreferentziako enklabea **Turismo Jasangarrian**, bizkaitar eta pertsona bisitari guztientzat.
- Ikonoa eta **elementu erakargarria** Bizkaira etortzen diren guztientzat
- Inguruaren eta, oro har, Bizkaiaren **garapen ekonomikoaren iturria**, gure bizi-kalitatea hobetuz.
- **Inguruaren eta naturaren arteko konexioa** lehengoatzea.
- Ardatza **bisitaren esperientzia** da.

Gaztelugatxe gaur: Diagnostiko Estrategikoa

Gaztelugatxe, gaur egunera arte, **era naturalean garatu da interes turistikoko gune moduan**, eta bere ospea nabarmen hazi da azken urte hauetan. Horregatik, egunera arte ez denez estrategia jakin bat definitu, derrigorrezkoa da **proiektu integral bat egituratzea**. Proiektuak landu diren alderdi guztietan **identifikatu diren erronkak erantzun behar ditu**.



Estrategia eta posizionamendua


Diagnostikoa

- Gaztelugatxe era naturalean **interes turistikoko gune moduan** garatu da, posizionatzeko estrategia jakin edo zehatzik gabe.
- **Bisitariarengan finkatuta dagoen esperientzia baten garapenik ez edukitzea**, hala enklabea nola inguruko beste toki batzuekin (Bakio, Bermeo, Urdaibai, Bizkaiko itsasertza, etab.) duen erlazioa aintzat hartuko dituen.
- **Enklabearen izen ofiziala bera ere ez dago argi** (Gaztelugatxeko San Joan, Gaztelugatxe, baita Rocadragón ere).



Erronka

Gaztelugatxeren posizionamendua argia definitzea. Horren oinarriak pertsona bisitariari helarazteko ezaugarri bereizleak dira, aldi berean enklabea inguruko beste toki turistikoko batzuekin erlazionatuz.



Komunikazioa

Diagnostikoa

- **Agente publiko eta pribatu batzuek Gaztelugatxeko irudia komunikazio eta promozio estrategia egituratu eta homogeneorik gabe erabiltzea.**
- **Komunikazioa bakarrik finkatzea baselizan eta bisitetan**, eta beste alderdi batzuetan transmisioa oso mugatua izatea, adibidez Biotoporen aintzatespena, balio kulturalak, mitoak eta kondairak, etab.
- **Online kanalen erabilera oso eskasa** pertsona bisitariarekin komunikatzeko.
- **Inguruari buruzko informazioaren eskaera handiagoa izatea** pertsona bisitarien artean.



Erronka

Komunikazio estrategia egituratu bat sortzea agente guztien artean. Estrategia horrek informazio-kanal berriak aprobetxatu behar ditu pertsona bisitariarekin hobeto komunikatzeko.

Gaztelugatxe gaur: Diagnostiko estrategikoa



Eskaera

Diagnostikoa

- Azken urtean asko hazi da **enklabea bisitatzen duten pertsonen kupurua** (beste faktore batzuen artean, Tronuen Jokoa efektuaren ondorioz): 74.220 pertsona uztailan, 143.219 abuztuan, 61.871 irailean eta 54.283 urrian.
- **Bisitaren iraupena mugatua da**: 107 minutu batezbeste, eta inguruko udalerriekiko (Bakio eta Bermeo) eta hurbil dauden beste herri batzuekiko interakzioa baxua da.
- **Ez da Gaztelugatxe aprobetxatzen gastua erakartzeko elementu moduan**: pertsona bisitariak inguruko herrietan **lo egitea eta dirua gastatzea** ia hutsaren parekoa da.



Erronka

Gaztelugatxe turismo jasangarriko enklabe moduan posizionatzea. Destinoaren urtarokotasuna gainditu behar da eta, ondorioz, bisitaren **esperientzia askoz ere asegarriagoa** izatea lortu. Bisitarien kopuruaren hazkuntza inguruaren **dinamizazio ekonomiko eta sozialerako** aprobetxatu behar da, enklabean egiten den **egonaldia luzatuz** eta, beraz, **gastua eta jarduera ekonomikoa lortuz**.



Mugikortasuna eta irisgarritasuna

Diagnostikoa

- Ingurura iristeko garraiabide nagusia **ibilgailu pribatua da**: guztira Gaztelugatxetik hurbil aparkatzeko **370 plaza** daude (gehienak pribatuak dira) eta zirkulazio arazoak daude (aparkalekuak beteta egoten dira, bidearen ertzetan aparkatzen da, etab.)
- **Garraio publikoaren** arlotik ematen diren konponbideak ez daude pertsona bisitarien **eskaerei** egokitua (ordutegi mugatuak, ibilbideak luzeegiak dira, etab.)
- **Zailtasunak daude enklabera oinez iristeko eta** horretan zehar **mugitzeko**, bide-zidorrak eta ibilbideak egoera txarrean daudelako.



Erronka

Gaztelugatxe **paseo erakargarria egiteko toki moduan** lehengoratzeko, oinez egiteko bideak eta ibilbideak hobetuz; aldi berean, garraiabide desberdinen bidez tokira iristeko eta bertatik mugitzeko erraztasunak ematea.

Gaztelugatxe gaur: Diagnostiko estrategikoa



Zerbitzuak eta azpiegiturak

Diagnostikoa

- Inguruko herrietan **ostatu, ostalaritza eta baliabide turistiko**en eskaintza mugatua da.
- Badago Gaztelugatxeko bisita, baina ez da inguruan egonaldia luzatzeko **beste zerbitzu turistik**o batzuekin osatzen.

! Erronka

Gaztelugatxeko xedea den publikoaren **beharrizane**kin bat **etorri**ko diren **zerbitzu**en eta **azpiegitu**ren eskaintza sortzea, **gero** eta **handiago** den eskaerari aurre **egiteko gauza izango** dena.



Ingurumeneko jasangarritasuna

Diagnostikoa

- Gaztelugatxeko San Joan kontserbatu eta mantendu behar den **Biotopo Babestu moduan aintzatetsita dago**, **Natura Sarea 2000ren barruan dagoena**.
- Aldearen **landaretzaren** eta **faunaren askotarikotasuna** handia da, eta horiekiko **arazoak daude** Gaztelugatxeko **pertsona bisitarien kopuruaren hazkuntza nabarmenaren ondorioz**.

! Erronka

Batu egin behar dira enklabeak aktibo turistik^o moduan duen betebeharra eta **bertako balio naturalak ahalik** eta **gehien konsterbatzeko** eta **zaintzeko beharrizana**, **pertsona bisitariak** arlo horri dagokionez **kontzientziazatuz** eta **sentsibilizatuz**.



Enklabearen gobernantza eta kudeaketa

Diagnostikoa

- Aldean **eskumenak dituzten administrazio publikoak bat baino gehiago dira** (Bizkaiko Foru Aldundiaren Sail batzuk, Bakio eta Bermeoko udalak, Itsasertzen Mugaketa, Eusko Jaurlaritza, etab.), orain arte egiten izan dituzten jardukeketan **beti koordinatu gabe** jokatu dutenak.
- **Agente pribatu asko**, tradizioagatik eta historiagatik enklaberakein oso lotuta daudenak.

! Erronka

Gobernantza Eredu bat garatzea, **Gaztelugatxeri lotuta dauden agente guztien ahaleginak biltzeko** gauza izango dena kontserbazio naturala eta kudeaketa turistik^o jasangarria zuzenak izan daitezen.

Gaztelugatxeren etorkizuneko ikuspegia

Gaztelugatxe bizkaitarron sinboloa da bere balio historiko eta kulturalagatik eta, aldi berean, Biotopo babestu moduan, ingurumeneko erreferentea da Euskadi osoarentzat, eta derrigorrez bateragarri bihurtu behar ditu bi ezaugarri nagusi: enklabe turistiko moduan duen erronka eta, aldi berean, derrigorrez ingurua kontserbatu beharra.

Gaztelugatxeren ikuspegiaren oinarria oso argia da: enklabeko bisitek antolatuak eta ordenatuak izan behar dute, eta ondo kudeatu behar dira; ardatz nagusia Gaztelugatxe bektore turistiko jasangarria izatean datza, ezaugarri eta nortasun berezikoa. Kontua da ezaugarri horiekin ikonoa eta aukera dela, hala Bizkaiko itsasertz osorako nola Euskal Kostalde osorako. Hori ez ezik, oroimenean gordetzeko moduko esperientzia-eragilea den lekua da; aldi berean, ingurumena babesteko espazio bereziaren aintzatespena du eta, azkenik, bere xedea Bizkaiaren, orokorrean hartuta, aldeko bultzada sozial eta ekonomikoan lagundu behar

Jarduketa integrala Gaztelugatxeko inguruan

Gaztelugatxerako **lortu nahi den ikuspegia** bete ahal izateko turismorako eta aisialdirako leku gisa antolatu eta sustatu behar da ingurua, ingurumenaren babesarekin orekatuta eta honako **lan-esparru** hauetan funtsatutako **proiektu**-proposamenen estrategia oinarri hartuta:

1



Estrategia turistiko-kultural bat diseinatzea, bisitariarentzat bizipen paregabe eta gogoangarria sortze aldera.

2



Gaztelugatxeren inguruan **mugikortasun eta irisgarritasunerako irtenbideak** garatzea (oinezko, bizikleta, ibilgailu eta abarretarako pentsatuta), eta bisitariek duten premia eta eskarietara egokituta.

3



Komunikazio-estrategia bat gauzatzea, *offline* eta *online*, tokiko herritarrekin eta bisitariekin *engagement* delakoa hobetze aldera.

4




Biotopo babestua zaintzen lagunduko duten ekimen berriak abiaraztea, eta ingurumenarekiko eta inguruko flora eta faunaren espezieak zaintzearekiko kontzientzia sortzea.

5



Tokiaren kudeaketa arautzea, Gaztelugatxeko inguruan eskumena duten eragileak inplikatur, Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenduta.


Ikuspegia betetzera bideratutako proposamenak.



Zer motatako proposamenak jaso dira planean?

3 maila geografikotan garatzeko proiektuen proposamena:

1. Gaztelugatxe
2. Bakio / Bermeo
3. Bizkaia – Bizkaiko kostaldea



Jarduera ezberdinetarako egin daitezkeen jarduketen proposamena:

- ✓ Obrak
- ✓ Inguruaren antolamendua
- ✓ Zerbitzu berrien definizioa eta sustapena
- ✓ Gaur egungo zerbitzua indartzea
- ✓ Kudeaketa-ereduaren definizioa
- ✓ Ingurumena zaintzea

Jarduketa integrala Gaztelugatxeko inguruan



Egin daitezkeen jarduketan proposamena



01. Estrategia turistiko-kulturala



Makroproiektuen proposamena

1.1 Gaztelugatxeko **bisitaren bizipen** antolatu eta gogoangarria sortzea, eta bisitariak pozik egotea, gero eta gehiago

Gaztelugatxerako lortu nahi den estrategia turistiko-kulturalaren oinarri da **bisita gogoangarri bat bizi ahal izatea**, honako elementu gako hauen gainean oinarrituko duena:

- **Harrera egiteko, informazioa jasotzeko eta interpretaziorako espazio bat sortzea**
- **Sartzen direnen kontrola** egitea *ticketing* sistema erabiliz
- Bisitaren, seinaleen eta turismo-informazioaren **ibilbideak** definitzea
- **Bisitatzeko beste aukera batzuk sustatzea** profilaren arabera

8 proposamen

1.2 Gaztelugatxeko ingurua eta bisitan eskaintzen diren zerbitzuak etengabe **egokitzea, zaintzea eta hobetzea**

Gaztelugatxek aurre egiteko duen funtsezko erronka bat da **bisitariei eskaintzen zaizkien zerbitzuak egokitzea eta hobetzea**. Horretarako, honako jarduketa hauek proposatu dira:

- **Atsedeen hartzeko eta osasun-laguntza jasotzeko espazio bat instalatzea**
- Beste **komun publiko** batzuk instalatzea
- **Segurtasuneko** ekipamenduak eta **garbiketa**-zerbitzua hobetzea
- Inguruan existitzen diren elementuak egokitzea eta homogeneizatzea

11 proposamen

1.3 Gaztelugatxeko **bisitari lotutako jarduerak** sustatzea, bisitarien esperientzia hobea izatera lagun dezaten

Gaztelugatxe bisitatzea erakargarria izan dadin; **turismo-jarduera gehigarriak** abiarazi beharko dira, eta jarduera hauek bultzatu nahi dira horretarako:

- Sustatzea **bisita gidatuak eta hezkuntza-bisitak** abiaraztea
- Sustatzea **turismo-esperientziak** abiaraztea
- Sustatzea **itsasotik eta airetik bisitatzeko zerbitzuak** abiaraztea

4 proposamen



01. Estrategia turistiko-kulturala



Makroproiektuen proposamena

1.4 Gaztelugatxeko inguruan **segurtasuna areagotzea**, modu koordinatuan eskumena duten eragileen artean

Gaztelugatxeko **inguruan segurtasuna hobetzea** da, inolako zalantzarik gabe, bertara doazen pertsonei bisita gogoangarria izatea bermatzeko palanka gisa landu behar den alderdietako bat:

- **Osasun-laguntza emateko gune** bat sortzea eta desfibriladoreak instalatzea
- **Helikopteroak lurreratzeko espazioa egokitzea**
- Gaztelugatxeko inguruan **zaintzeko kamerak** instalatzea

5 proposamen

1.5 Gaztelugatxe eta beste interesgune batzuk **integratzea**, baterako esperientzien, jardueren eta proiektuen bitartez. Horrela, sinergia ustiatzea eta bisitariaren egonaldiak luzatzea lortuko da

Gaztelugatxe inguruko beste interesgune batzuekin lotu behar da, bisitariei esperientzia osoagoa eta gogobetegarriagoa eskaintzeko, eta, horretarako, honako jarduera hauek sustatuko dira:

- **Gaztelugatxe inguruko udalerriekin** (Bakio eta Bermeo) **eta Bizkaiko kostaldearekin lotuko dituen bizipenak** sortzea
- **Bilbao Bizkaia Card delakoan Gaztelugatxeri buruzko informazioa** gehitzea

3 proposamen



02. Irisgarritasunari eta mugikortasunari lotutako irtenbideak



Makroproiektuen proposamena

2.1 Gaztelugatxeko txirrindulari eta oinezkoen irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzea, eta ingurua bisitatuko duten pertsonentzako paseatzeko eta bisitatzeko espazio egokiak sortzea

Gaztelugatxeko inguruan **irisgarritasuna eta mugikortasuna** hobetu beharra dago, bisitariak inguruaz modu atseginean goza dezaten. Horretarako, honako jarduketak hauek proposatu dira:

- Gaztelugatxeko Donienera **sartzeko ibilbideak eta eskailerak egokitzea eta hobetzea**
- **Bisitatzeko sistema espezifikoak** garatzea, **mugikortasun-arazoak** dituzten pertsonentzat

9 proposamen

2.2 Gaztelugatxeko inguruan errepidetik sartzeko eta zirkulazio baretzea hobetzea

Gaztelugatxera bertaratzen diren bisitarien kopuru handia ikusita, behar-beharrezkoa da inguruan **zirkulazioa antolatu eta baretuko dituzten hainbat jarduketa egitea**:

- Gaztelugatxeko inguruan **zirkulazioa antolatzea eta baretzea** erraztuko dituzten irtenbideak sortzea
- Gaztelugatxe jasota duen **seinaleen sistema** bat definitzea, inguruko udalerrietan eta Bizkaiko errepide nagusietan

4 proposamen

2.3 **Aparkatzeko espazioak berrantolatzea** Gaztelugatxe inguruan, eta espazio berriak egokitzea aurreikusitako eskariari erantzuteko

Gaur egun Gaztelugatxeko ibilgailuak aparkatzeko existitzen diren lekuen kopurua ez da nahikoa; hortaz, aparkatzeko espazioak hobetu beharko dira:

- Aparkatzeko espazioak sortzea eta egokitzea, eta aparkatzeko lekuen kopurua 370tik 500era handitzea

6 proposamen



02. Irisgarritasunari eta mugikortasunari lotutako irtenbideak



Makroproiektuen proposamena

2.4 Garraio kolektiborako sistemak sustatzea Gaztelugatxera iristeko baliabide gisa

Gaztelugatxeko bisitak bizkortzea eta antolatzea bisitariaren esperientzia hobetzeko erronka nagusietako bat da, horiek horrela, beharrezkotzat jotzen da **garraio publikoko sistemak sustatzea**:

- **Bizkaibusen lineak sendotzea** eta ingurune horretako geldialdiak egokitzea
- Bakio eta Bermeo udalerrietatik irteten diren **anezka-autobusen** zerbitzua definitzea.

3 proposamen

2.5 Gaztelugatxera oinez eta bizikletaz iristeko sarbideak egokitzea, Bakio eta Bermeo udalerrien arteko konexioa hobetuz

Gaztelugatxera joateko ibilbide eta bidezidor asko hondatuta daude; horiek horrela, nahitaezkoa da horiek **egokitu eta birgaitzeko lanak** egitea:

- **Bakio eta Bermeo Gaztelugatxerekin lotzen dituzten oinezkoentzako eta txirrindularientzako bideak hobetu eta egokitzea**

5 proposamen

03. Komunikazio estrategia



Makroproiektuen proposamena

3.1 Bisitariarekin **online komunikazio-tresnak** garatzea, bisita baino lehen, bitartean eta ondoren Gaztelugatxerekiko **engagement-a** hobetzeko

Gaztelugatxeri buruz dagoen informazio urriaren ondorioz, beharrezkoa da bisitaria behar bezala **informatzea ahalbidetzen duten online komunikazio-tresnak garatzea**:

- Gaztelugatxeri buruzko **webgune espezifiko** bat garatzea
- **Sare sozialetan** Gaztelugatxeri buruzko **profil** bat sortzeko aukera baloratzea

2 proposamen

3.2 Eragileen artean **koordinatutako marka-estrategia bat diseinatzea**, Gaztelugatxek izatea nahi dugun posizionamendu-turistikoarekin bat datorrena

Gaur egun, Gaztelugatxeren inguruko **komunikazio-estrategia baten falta** antzematen da, nahiz eta eragile askok erakargarri turistiko gisa erabiltzen duten. **Estrategia koordinatu eta partekatu baten alde lan egin** behar da, jarduketa hauen bitartez:

- Gaztelugatxerentzako **marka-irudi espezifiko** bat sortzea, modu homogeneoan erabili dadin
- **Sustapen turistiko integralerako estrategia bat definitzea**, Bizkaiko Kostaldearekin bat datorrena

2 proposamen



04. Biotopoaren kontserbazioa



Makroproiektuen proposamena

4.1 Biotopoa kontserbatzea, bere paisaia- eta natura-balioak babestuz

Gaztelugatxeko Doniene **Biotopo babestua** da eta inguruan flora eta fauna **barietate** handia dago; horiek horrela, nahitaezkoa da **biotopoa kontserbatzera zuzendutako jarduketak** egitea, mota desberdinetako lanak eginez:

- Ingurunekeo **kostaldea garbitzeko lanak** egikaritzea
- Biotopoko **flora eta fauna babesteko azterlanak** egitea
- Biotopoko **florari eta faunari buruzko sentsibilizazio- eta informazio-kanpaina** bat garatzea

14 proposamen

Egin daitezkeen jarduketan proposamena



05. Tokiaren kudeaketa



Makroproiektuen proposamena

5.1 Gaztelugatxeren kudeaketa integralerako eta jarduketarako **gobernantza eta antolamendurako irtenbideak** martxan jartzea, ingurune horretan lan egiten duten eragileen arteko koordinazioaren bidez

Gaztelugatxeko Doniene biotopo babestu bat denez eta itsasoaren ondoan kokatuta dagoenez, **eragile askok dituzte eskumenak eremu horretan**; horiek horrela, eremuaren antolamendua beharrezkotzat jotzen da:

- BFAk zuzendutako Gaztelugatxerentzako **kudeaketa organo** bat eratzea

1 proposamen

5.2 Gaztelugatxe eta bere ingurunearen **kudeaketa operatiborako tresnak**

Gaztelugatxeren gobernantza eta antolamendurako irtenbideen osagarri gisa, beharrezkoa da **kudeaketa operatiboa errazteko tresnak ezartzea**:

- **Zuzendari-kontserbatzailearen** irudia sortzea, Gaztelugatxe mantentzeko.
- Gaztelugatxe **kudeatzeko tresna/irtenbide infomatiko** bat sortzea

3 proposamen

5.3 Gaztelugatxeko bisitarako eta hari lotutako zerbitzuetarako **pricing estrategia** bat definitzea

Gaztelugatxek **bisitariak erakartzeko daukan ahalmenaren eta ospearen ondorioz**, beharrezkoa da **tokiaren ustiapen ekonomikoaren** inguruko hausnarketa bat egitea:

- Gaztelugatxeko **zerbitzuak eskaintzeko pricing estrategia** bat definitzea

1 proposamen 16



05. Tokiaren kudeaketa



Makroproiektuen proposamena

5.4 Ziurtagirien bidez Gaztelugatxeren balioa azpimarratzea **ondare-espazioa** eta **turismo jasangarriaren bektorea** den aldetik

Tokiaren kudeaketarako funtsezko alderdi gisa, interesgarria da **Gaztelugatxe ingurunearen balioa sendotzea**; horretarako bi lan-lerro hauek proposatzen dira:

- Gaztelugatxe **kultura-intereseko ondasun** adieraztea
- Gaztelugatxeri **Toki Jasangarriaren** ziurtagiria ematea

2 proposamen

5.5 Gaztelugatxeko ingurunera **inbertsio pribatuak erakartzea** ingurunearen garapen turistikorako

Gaztelugatxek toki turistikoa jasangarri gisa duen ospea areagotzeak **inbertsio-proiektuen garapenerako aukera** argia dakarkie turismoaren arloko eta turismoari lotutako sektoreetako operadore desberdinei

- **Gaztelugatxeko eta eremuko ingurunearen garapen turistikorako inbertsio pribatuak erakartzeko** jarduketak garatzea
- Bizkaia Oreak proiektuaren baitan **Eskualdeko Mahaien bidez Gaztelugatxeko turismoa** garatzea

2 proposamen

Gaztelugatxe, Bizkaiko kostaldearen ikurra

Hori kontuan hartuta, Gaztelugatxeren garapena foru estrategien bide berean joan behar da, hainbat esparrutan gainera. Honako hau azpimarratu behar da: **Kokapen turistikoaren estrategia 2018-2025**

Estrategia horren bidez, hain zuzen, formula berri bat ezarri behar da Bilbo-Bizkaia nazioartean helmuga moduan bultzatzeko eta kokatzeko. Horretarako, lurralde hau berezi egiten duten produktu paregabeak multzokatu eta prestatu behar dira, mundu osoan horien berri emateko.

Mendiak gara, gastronomia gara, pertsonak gara, talentua gara, kultura gara, kirola gara, nortasuna gara, talentua gara, Athletic gara, enpresa gara...baina, batez ere, Kostaldea gara.

Beraz, Bizkaiko kostaldearen ikusgarritasuna balioa eman behar zaion funtsezko elementuetako bat da. Itsasoak Bizkaiko orografia zizelkatu du, baina baita bizkaitarren nortasuna ere.

Eta Gaztelugatxe horren ardatza da, Bizkaiko kostaldearen aberastasuna modurik adierazgarrienean erakusten duen irudia. Bizkaiko kostalde osoaren elementu ikoniko gisa kokatu daiteke eta horrelaxe kokatu behar da: 28 hondartza, surfa, arrantza-guneak, kirol-portuak, altxor geologikoak, paisaia ikusgarriak, pertsonak, aisia, dibertsioa, kultura, tradizioa, historia, gastronomia, eta abar.

Hori dela eta, kokapen turistikoaren estrategiak (2018-2025) aukera bat lortu nahi du Bizkaiko kostalde osoarentzat, Gaztelugatxe ardatz moduan hartuta eta horren inguruan kostaldeko udalerri guztiekin sare bat eratuta. Aukera bat, partekatua eta sinetsita. ***Aukera bat Bizkai osorako.***

Bilbo-Bizkaia: 30 produktu turistiko

Zehazki, Kokapen Turistikoaren Estrategian (2018-2025) **30 produktu turistikoa** jasotzen dira **Bilbo-Bizkairako**, horietako batzuk Gaztelugatxeren eta haren inguruaren garapenari lotuta



Labur esanda...

Helburua da Gaztelugatxe bisitatzeko toki antolatua, irisgarria eta ondo kudeatua izatea, **Bizkaiko kostaldearen ikur** izatea, bai bizkaitarrentzat bai lurraldera datozen turistentzat. Hots, Bizkaia osoari bultzada soziala eta ekonomikoa emateko balio behar du.

Azken batean, **Gaztelugatxerako ezarri nahi dena bat dator Kokapen Turistikoaren Estrategiarekin (2018-2025)**. Helburu nagusi hauek bete nahi dira:



Bizkaiko kostaldeko udalerriei proiektu bakarra eskaintzea, Gaztelugatxe proiektu horren ikur nagusia izanik.



Bisitariei esperientzia gogoangarriak emango dizkien toki moduan kokatzea Gaztelugatxe, inguru horretan, inguruko udalerrietan eta, oro har, Bizkaiko kostalde osoan **egonaldi luzeagoak egin ditzaten**. Bisitariak erakarriko dituen eta, gero, bisitariak kostalde osoan bisitatzera bultzatuko dituen elementua izan behar da. Horrela, lurraldearen garapen ekonomikoa eta soziala bultzatuko dira.



Turismo eredu errespetuzkoa eta jasangarria sustatu behar da Gaztelugatxen, eta gero Bizkaiko kostalde osora eta, orokorrean, lurralde historiko osora zabaldu.



Eragin ekonomikoa...

Gaztelugatxeren inguruari lotuta dagoen jarduerak urtero **27 eta 33 milioi euro arteko gastua** izango du EAEn datozen urteetan

ondorioz...



31–35 M €

ekarpen moduan EAEko urteko **BPGd-ari**



560–625

enplegu mantenduko dira urtero EAEn



3,4–4 M €

zerga-itzulkin moduan EAEko urteko diru-bilketa balioetsira (SZ, PFEZ eta BEZaren bidez).

Garatuko diren jardueren
proposamena, zehatz



01. Estrategia turistiko-kulturala

Makroproiektua

1.1 Bisita-esperientzia antolatua eta gogoangarria prestatzea Gaztelugatxera, bisitariek poztasuna areagotuz

Jarduketen proposamenak

- 1.1.1 Gaztelugatxen bisitariarentzako harrera, informazio eta interpretazio gune bat sortzea, bisita egiteko sarrera izango dena
- 1.1.2 Gaztelugatxeko ibilbideetan sarrerak eta irteerak kontrolatzeko sistemak jartzea
- 1.1.3 Tiketen sistema bat prestatzea, Gaztelugatxeren web orriaren bitartez
- 1.1.4 Gaztelugatxe bisitatzeko aukerak zehaztea
- 1.1.5 Gaztelugatxeri lotutako seinale turistikoen proiektu integral bat zehaztea
- 1.1.6 Gaztelugatxe bisitatzeko ibilbideetan zehar interpretazio turistikoa eta *storytelling* ezartzen dituen proiektu bat prestatzea
- 1.1.7 BI-3101 errepide zaharrean begiratoki bat egitea
- 1.1.8 Bizkaiko agente turistikoekin (hotelak, jatetxeak, etab.) elkarlanean aritzea, Gaztelugatxeren tiketen sistema bultzatze aldera



01. Estrategia turistiko-kulturala

Makroproiektua

1.2 Etengabe egokitzea, babestea eta hobetzea Gaztelugatxeren ingurua eta bisitan eskaintzen diren zerbitzuak

Jarduketan proposamenak

- | | |
|--------|--|
| 1.2.1 | Lurra eta itsasoa batzen diren gunean etxola botatzea eta, bertan, bisitariek atseden hartzeko eta turismo- eta osasun-asistentzia jasotzeko espazio bat jartzea |
| 1.2.2 | Gaztelugatxeko Doniene baselizaren aurrean dagoen etxola bisitarien beharrianetara egokitzea |
| 1.2.3 | Komun publiko berriak jartzea |
| 1.2.4 | Komun publiko berriak saneamendu sarera lotzea |
| 1.2.5 | Gaztelugatxe garbitzeko zerbitzua zehaztea |
| 1.2.6 | Segurtasun-ekipamenduak hobetzea Gaztelugatxeko Doniene baselizaren inguruan |
| 1.2.7 | Gaztelugatxe apaintzeko eta altzariz janzteko plan integrala garatzea, bertan dauden elementuak homogeneizatuz |
| 1.2.8 | Gaztelugatxeko Doniene baselizaren kanpoko fatxada eta barrualdea hobetzea |
| 1.2.9 | Gaztelugatxeren argiztapenerako proiektu integrala garatzea |
| 1.2.10 | Linea elektrikoa lurperatzea Gaztelugatxeko Donieneren biotopo babestuak hartzen duen espazioan |
| 1.2.11 | Gaztelugatxeko Doniene baselizaren kanpaiari soinua kentzea |



01. Estrategia turistiko-kulturala

Makroproiektua

1.3 Gaztelugatxe bisitatzeari lotutako jarduerak, bisitariaren esperientzia hobetuko dutenak, sustatzea

Jarduketen proposamenak

- 1.3.1 Bisita gidatuen zerbitzu bat martxan jartzea eta sustatzea Gaztelugatxen
- 1.3.2 Gaztelugatxera bisita hezigarriak egiteko zerbitzu bat martxan jartzea eta sustatzea
- 1.3.3 Esperientzia turistikoak martxan jartzea eta sustatzea Gaztelugatxen
- 1.3.4 Itsasotik eta airetik Gaztelugatxera bisitak egiteko zerbitzuak martxan jartzea eta sustatzea

Makroproiektua

1.4 Gaztelugatxe inguruan segurtasuna areagotzea, eskumena duten agenteak koordinatuta

Jarduketen proposamenak

- 1.4.1 Sorospen eta oinarrizko osasun-laguntzarako postu bat jartzea Gaztelugatxen
- 1.4.2 Desfibriladoreak jartzea Gaztelugatxen
- 1.4.3 Helikopteroek lurra hartzeko espazio bat sortzea Gaztelugatxen
- 1.4.4 Zaintza-kamerak jartzea Gaztelugatxeko aparkatzeko eremu handietan
- 1.4.5 Polizien eta larrialdien komunikazio-sareak hobetzea Gaztelugatxen (errepikagailuak jarri TETRA sarerako)



01. Estrategia turistiko-kulturala

Makroproiektua

1.5

Gaztelugatxe beste interes-gune batzuekin integratzea, denentzako esperientziak, jarduerak eta proiektuak prestatuz. Horrela, sinergiak aprobetxatuko dira eta bisitariak egonaldi luzeagoak egitea lortuko da

Jarduketan proposamenak

1.5.1

Bakion eta Bermeon esperientzia turistikoak sor daitezen sustatzea

1.5.2

Bizkaiko edo/eta Euskal kostaldean esperientziak sor daitezen sustatzea

1.5.3

Gaztelugatxe eta haren ingurua bisitatzeari buruzko informazioa sartzeari Bilbao Bizkaia Card-ean



02. Irisgarritasunari eta mugikortasunari buruzko irtenbideak

Makroproiektua

- 2.1** **Gaztelugatxen txirrindularientzako eta oinezkoentzako irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzea inguruneke bisitarientzat pasiorako eta bisitak egiteko gune egokiak sortuz**

Egin daitezkeen jarduketei buruzko proposamena

- | | |
|--------------|---|
| 2.1.1 | Gaztelugatxera iristeko eskailerak egokitzea |
| 2.1.2 | Eneperi jatetxetik Gaztelugatxera iristeko bidea hobetzeko paisaia-proiektu integral bat definitu eta egikaritzea |
| 2.1.3 | Ermutik Gaztelugatxera iristeko bidea hobetzeko proiektu bat egikaritzea |
| 2.1.4 | Ermuko mazela eskoratzea |
| 2.1.5 | Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako berariazko sistemak garatzea, behatokitatik bisita egiteko irisgarritasuna bermatuz edo beste sistema batzuk baliatuz, itsasontzia, esate baterako |
| 2.1.6 | BI-3101 errepide zaharreko ibilgailuen zirkulaziorako sarbidea moztea, Gaztelubegiko aparkalekuaren parean; horrekin batera, ibilgailuei buelta ematen lagunduko dien gune bat egokitzea |
| 2.1.7 | BI-3101 errepide zaharreko zirkulaziorako moztutako gunea oinezkoentzako eta txirrindularientzako gune gisa egokitzea: 1. fasea – Gaztelubegiko aparkalekutik Ermuko begiratokiraino |
| 2.1.8 | BI-3101 errepide zaharreko zirkulaziorako moztutako gunea oinezkoentzako eta txirrindularientzako gune gisa egokitzea: 2. fasea – Ermuko begiratokitik Lugorriraino |
| 2.1.9 | Errepidearekin paraleloan, oinezkoentzako pasabide bat sortzea egokia den aztertzea, Bar 01 Eneperiko inguruarekin lotuko duena |



02. Irisgarritasunari eta mugikortasunari buruzko irtenbideak

Makroproiektua

2.2 Gaztelugatxeko ingurunean errepide bidezko sarbideak hobetzea eta zirkulazioa arintzea

Egin daitezkeen jarduketei buruzko proposamena

- 2.2.1 Eneperi ingurura heltzeko sarbidea egokitzea Gaztelugatxerako sarbidea hobetze aldera
- 2.2.2 Eneperi aldera heltzeko ingurunean zirkulazioa arintzeko irtenbideak abian jartzea
- 2.2.3 BI-3101 errepide zaharrean eta saihesbide berrian topografia-kontrolako azterlanak egitea urtero
- 2.2.4 Gaztelugatxeko seinaleztapen-sistema bat sortzea Bizkaiko autobia, autobide eta errepide nagusietan, eta baita toki horretara heltzeko puntuetan ere.

Makroproiektua

2.3 Gaztelugatxeko ingurunean aparkatzeko tokiak berriz antolatzea eta aurreikusitako eskaerari erantzuteko gune berriak egokitzea

Egin daitezkeen jarduketei buruzko proposamena

- 2.3.1 Talde antolatuen autobusetako bidaiariak igotzeko eta jaisteko gune bat jartzea
- 2.3.2 Gaztelubegiko aparkalekuan nahiz haren ingurunean aparkatzeko tokiak berriz antolatu eta handitzea
- 2.3.3 Bar 01eko atzealdean dagoen hartxintzar-eremua Gaztelugatxeko bisitarientzako aparkaleku gisa egokitzea
- 2.3.4 San Pelaioiko baselizako aparkalekua Gaztelugatxeko bisitarientzako aparkaleku gisa egokitzea
- 2.3.5 Lurgorri inguruan aparkaleku bat egokitzea (BI-3101 errepide zaharra eta BI-3101 saihesbide berria lotzea)
- 2.3.6 Gaztelugatxe inguruan aparkalekuen seinaleztapen-sistema adimendun bat abian jartzea; haren bidez, bisitariari denbora errealean zenbat palza dauden libre jakinaraziko zaio.



02. Irisgarritasunari eta mugikortasunari buruzko irtenbideak

Makroproiektua

2.4 Garraio kolektiboko sistemak Gaztelugatxera iristeko garraiobide gisa sustatzea

Egin daitezkeen jarduketei buruzko proposamena

- 2.4.1 Gaztelugatxe inguruko Bizkaibusen geltokiak egokitzea; hala, erabiltzailearen segurtasuna eta erosotasuna bematuko dituzten guneak sortuko dira.
- 2.4.2 Bakio-Gaztelugatxe-Bermeoko interesguneak lotuko dituen anezka-autobus berezi bat definitu eta abian jartzea
- 2.4.3 Gaztelugatxe eta inguruko udalerriak batzen dituen Bizkaibusko lineen maiztasuna indartzea

Makroproiektua

2.5 Gaztelugatxerako oinezkoentzako eta txirrindularientzako sarbideak egokitzea; hala, Bakio eta Bermeorekiko lotura hobetuko da

Egin daitezkeen jarduketei buruzko proposamena

- 2.5.1 Gaztelugatxen bizikletak aparkatzeko tokiak jartzea
- 2.5.2 Bakio eta Gaztelugatxe arteko itsasertzeko bidea egokitzea
- 2.5.3 PR BI-179 bidea egokitzea eta homologatzea
- 2.5.4 Matxitxako eta BI-310 errepidea batzen dituen bidea egokitzea
- 2.5.5 Bermeotik Matxitxako aldera doan oinezkoentzako eta txirrindularientzako pasabide bat egitea

03. Komunikazio estrategia

Makroproiektua

- 3.1** Bisitariarekin sareko komunikazio-tresnak garatzea; hala, engagement delakoa hobetu ahalko dute Gaztelugatxerako bisitaren aurretik, bisitan zehar eta ondoren ere.

Egin daitezkeen jarduketei buruzko proposamena

- 3.1.1** Gaztelugatxeko turismo informazioa jasoko duen webgune bat garatzea
-
- 3.1.2** Gaztelugatxeri buruzko komunikazioa Bizkaiko Foru Aldundiko turismoko sare sozialen estrategian sartzea
-

Makroproiektua

- 3.2** Hainbat eragilek koordinatutako marka eta komunikazioko estrategia bat prestatzea, bilatzen den turismo posizionamenduarekin bat datorrena

Egin daitezkeen jarduketei buruzko proposamena

- 3.2.1** Gaztelugatxerako berariazko markaren irudia sortzea era homogeneo batean erabil ahal dadin
-
- 3.2.2** Bizkaiko itsasertzari buruzko turismo-sustapen integraleko estrategia bat zehaztea
-



04. Biotopoa kontserbatzea

Makroproiektua

4.1 Biotopoa kontserbatzea, haren paisaiaren balioa eta balio naturala zainduz

Egin daitezkeen jarduketei buruzko proposamena

- | | |
|--------|---|
| 4.1.1 | Gaztelugatxe inguruan dauden harrizko kostea eta hondartzetan garbiketa lanak egitea |
| 4.1.2 | Espezie aloktonoek (Balearretako sugandilak) natura ingurunean eragindako ondorioei buruzko informazio eta sentsibilizazio kanpainak burutzea |
| 4.1.3 | Balearretako sugandilen populazio aloktonoak kontrolatzeko programarekin jarraitzea eta Gaztelugatxeko KBEn dagoen <i>Podarcis muralis</i> espeziearen populazioaren zentsua egitea |
| 4.1.4 | <i>Lavatera arborea</i> espeziearen kokapenari eta garrantzi ekologikoari buruzko informazio panelak egin eta jartzea |
| 4.1.5 | <i>Lavatera arborea</i> espeziea biodibertsitatea kontserbatze aldera zein garrantzitsua den adierazten duten dibulgaziozko materialak prestatzea, gizarreak horren berri izan dezan |
| 4.1.6 | <i>Lavatera arborea</i> espezieak Gaztelugatxeko Donieneko KBEn, Aketxan batez ere, duen presentzia eta potentzialtasuna ebaluatzeko ikerketak burutzea |
| 4.1.7 | Urteko zentsuak egitea Belatz handiaren eta Sai zuriaren populazioak zehazteko, espezie horien ugalketa parametroak aztertzeke eta horiek kontrolatzeko eta zaintzeko plan bat ezartzeko |
| 4.1.8 | Abifauna migratzaile pelagikoa edo itsasertzekoaren populazioaren urteko zentsuak egitea |
| 4.1.9 | Orkidea espezieen presentziari buruzko ikerketa bat prestatzea 92/43/EEE Zuzentarauan jasotako habitatari, "Belardi lehor seminaturalak eta substratu kalkareotako sastraka-eiteko formazioak (6210)", bereziki erreparatuz |
| 4.1.10 | <i>Armeria euscadiensis</i> eta <i>Woodwardia radicans</i> espezieen komunitateei eusteko babes fisikoa ezarri beharri buruzko ikerketa bat prestatzea |
| 4.1.11 | <i>Cortaderia seoana</i> eta <i>Buddleja davidii</i> espezie inbaditzaileen jarraipena egitea eta horiek kontrolatzea eta desagerraraztea |
| 4.1.12 | Gaztelugatxe inguruan (begiratokiak jarriko diren eremuan) eta Matxitxakoko itsasargiaren inguruan eukaliptoak moztea |
| 4.1.13 | Urdaibaiko Biosfera Erreserbarekiko sinergiak baliatzea eta harekin hitzarmenak sinatzea, ezagutza eta esperientziak trukatzeko eta biodibertsitatea zaindu eta era jasangarrian erabiltzeko lan ildo komunak ezartzeko |
| 4.1.14 | Babestutako biotopoaren eremuan itsaski-bilketan aritzeko debekuaren gaineko kontrola indartzea |



05. Enklabea kudeatzea

Makroproiektua

5.1 Biotopoa kontserbatzea, haren paisaiaren balioa eta balio naturala zainduz

Egin daitezkeen jarduketei buruzko proposamena

- 5.1.1 Gaztelugatxeren jardun eta kudeaketa integrala antolatzeke eta gobernatzeko irtenbide bat sortzea

Makroproiektua

5.2 Gaztelugatxe eta haren inguruaren kudeaketa operatiboa burutzeko tresnak hobetzea

Egin daitezkeen jarduketei buruzko proposamena

- 5.2.1 Zuzendari-kontserbatzaile lanpostua sortzea, Gaztelugatxe mantentzeko lanetan jardun dezan
- 5.2.2 Pertsonak zenbatzeko neurgailuak behin betiko ezartzea
- 5.2.3 Gaztelugatxe eta haren ingurua kudeatzeko tresna/irtenbide informatikoa sortzea

Makroproiektua

5.3 Gaztelugatxerako bisitari eta han eskainitako zerbitzuei lotutako *pricing* estrategia definitzea

Egin daitezkeen jarduketei buruzko proposamena

- 5.3.1 Gaztelugatxeko zerbitzu eskaintzari lotutako *pricing* estrategia definitzea



05. Enklabea kudeatzea

Makroproiektua

5.4 Ziurtagirien bidez Gaztelugatxeren balioa nabamentzea turismo iraunkorraren ondare-espazio nahiz bektore gisa

Egin daitezkeen jarduketei buruzko proposamena

5.4.1 Gaztelugatxe kultura intereseko ondasun izendatzeko eskaera izapidetzea

5.4.2 Gaztelugatxe helmuga iraunkor gisa ziurtatzea, Turismo Iraunkorraren Gutun Europarrean oinarrituta

Makroproiektua

5.5 Gaztelugatxeko ingurunera inbertsio pribatuak erakartzea eremu hori turismo arloan garatzeko

Egin daitezkeen jarduketei buruzko proposamena

5.5.1 Gaztelugatxeko ingurunera eta alboko beste toki batzuetara inbertitzaile pribatuak erakartzea turismo arloan garatzeko

5.5.2 Gaztelugatxe turismo arloan garatzea eta eskualdeekin sinergiak bilatzea eskualdeko mahaien bidez eta Bizkaia Orekan proiektuaren esparruan.

